

## **LANEN DESKRIBAPENA**

Egungo kantzaren, frontoiaren eta espaloien itxura mantendu egiten da, sarbideak hobetuz eta zoruak eta hiri altzariak eta ekipamendua berrituz.

Jarraian, Proiektu honen helburu diren obren deskribapena egiten da, kapitulu garrantzitsuenen aipamena eginez:

### **1.- Aurretik egin beharreko lanak eta eraisketak**

Inguruetak kaleetan dauden –eta erreformaren helburu ez diren- zerbitzu-sare desberdinen jarraipena ziurtatu beharko da eta kale horietako zoruen berdintasuna. Lanak ondo koordinatuta egin beharko dira, bizilagunei ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko eta lanen kostua eta iraupena gutxitzeko; gainera obrak hartzen duen gunean dauden lokaletarako eta atarteetarako sarrera ahalbidetu beharko da gauzatze fase guztietan.

Bide sisteman ez du aldaketarik izango.

Bai kantxa eta frontoiaren ondoko espaloietan bai zona hondoratuaren goiko aldean dagoen zoruari dagokionez , zoladura guztia kentzea eta berria jartzea planteatu da. Zona hondoratuetan hormigoia armatuzko zoladura ere kendu egingo da, berritzeko.

Kantxa eta frontoi gunearen eta lorategiaren artean dagoen, habez eta zutabez osatutako hormigoizko egitura, bota egingo da eta bertan dauden sarea eta landare igokariari ere kendu egingo dira. Zutabeak dauden gunek eta horma horretako goiko alde guztia zementuzko morteroz errematatuko dira, guztiz bukatuta uzteko.

Horma eta goiko aldean gaur egun hondoratuta dagoen eskailera bota egingo dira eta era berean, arrapala egin ahal izateko, kantzako gunean dagoen espaloia eta eskailera ere kendu egingo dira. Frontoiko goiko aldeko zonako tramexa kendu egingo da eta haren orde bestea bat jarriko da.

Kantxa eta frontoi gunean dagoen luzekako hustubidearen kanaleta eta hormigoia armatuko sareta ere kentzea aurreikusita dago; baita zuhaitz-txorko guztietako lorategi-ertzak eta arrapala egiteko beharrezkoak direnak.

Sartzeko arrapala berria jarriko den guneko lurra eta hala eskatzen duten beste gunek batzuetakoa kenduko da.

Egungo iturriaren estaldura kendu egingo da, berreskuratu ahal izateko erretiratzeko.

### **2.- Igeltserotza eta zoruak**

Kantzako eta frontoiko gunean dagoen luzekako hustubidea berrikusi egingo da eta erreforma bideratuko da.

Kantxaren eta frontoiaren kotara dagoen gunea guztia zolatu egingo da. Zorua gris argi leundua izango da, kanpoko kirol guneeetarako erabili ohi den bezalakoa, irristagaitza.

Ibai ertzeko pasealekua, inguruko espaloiak eta hondoratuta dagoen goiko aldea zolatu egingo dira, gaur egun jarrita dagoen bezalako baldosa eran. Hondoratutako gunea, gaur egun aparkalekuetarako erabiltzen dena eta aurrez botako dena, zoruaren kota berera utziko da, oinezkoentzako zonarako. Zonaldea nibelatu egingo da eta bertan dauden hustubideak kota berdinerara jarriko dira, urak behar bezala husteko.

Arrapala berrira iristeko sarbideetan, metro bateko zinta bat jarriko da, arrapaladaren zabalera osoan eta ibaiaren pasealekuaren zabalera osoan. Zinta hori, diametroan 25 mm., altueran 6 mm eta elkarren artean 67 mm.ko tartea izango duten erroak izango dituzten baldosa hidrauliko irristagaitzez osatuta egongo da, inguruko zoladurarekiko oso desberdinak izango dira, eta ongi berezi beharko dira bai oinekin baita mugikortasuneko bastoi zuriarekin ere.

Gaur egun hondoratuta dauden eskaileren ordez, hormigoizko horma bat jarriko da; horma hori alde batetik bistako adreilu bitartez estaliko da, gaur egun bezala, eta goitik inpostarekin errematatuko da.

Goiko aldeko eskailera berria bistaratutako hormigoi armatukoa izango da.

Kantxa eta frontoi guneearen eta ibaiko pasealekuaren arteko tartea ixki egingo dira. Itxitura hori, kanpo aldetik zarpeatuta eta margotzeko prest egongo den, oin bateko lodierako adreilu zulatu latzezko fabrika bidez egingo da.

### 3.- Hornikuntza eta drainatzea

Hornikuntza sareari dagokionez:

Hondoratutako goiko aldean dagoen, 50 mmko polietilenoizko hodi zatia, garajeen euste hormaren kanpo aldetik paralelo doana, kendu egingo da. Era berean ebakidurazko hornikuntza balbula kendu egingo da eta, aldatutako hodira gertuen dagoen kutxetako, 2 hazbeteko konporta jarriko da.

Kantxa eta frontoiaren guneko kotan dagoen pasealekuko, erabiltezin bihurtutako ur-ahoa kendu egingo da.

Kantxa eta frontoi guneearen kotara dauden pasealekuko zuloak ixten direnez, itxituraren barruan geratzen den kutxetako bat mugitu egin behar da. Kuxteta horrek kokapen berria izango du, espaloian jarriko baita.

Ibaiaren pasealekuan iturri berri bat jarriko da, kantxara eta frontoira daraman arrapalaren inguruan, gaur egun dagoena kenduz.

Drainatze sareari dagokionez:

Kantxaren eta frontoiaren gunean luzeka doan hondatutako hormigoi armatuko kanaleta aldatuko da.

Goiko aldean dauden hustubideen altuera aldatu egiten da eta zoru berriaren kotara jarriko dira.

Saneamendu sareari dagokionez:

Ez da aldatuko.

#### 4.- Argiteria eta argindarra

Lurrazpiko kanalizazio lanak egingo dira kantxa eta frontoiko jolas guneko argiteri berriaren argindar instalazioaren lotunerako beharrezkoak diren kableak sartzeko. Instalazioa, egungo koadro elektrikotik, bertan dauden faroletako baten kuxetara egingo da. Puntu honetatik lurrazpiko instalazioaren kanalizazioa egingo da, lorategian eta kantxa eta frontoi gunean. Argiteri publiko berrirako elikadura linea, kobrezko eroaleez osatuta egongo da.

Sarearen gainontzekoa orain arte bezala mantenduko da funtzionamenduan, eta sarearekin gurutzatzen diren beste zerbitzu batzuen gauzatzean, desbideratze batzuk besterik ez dira egingo noizbehinka eta sarean beharrezkoa diren konponketak.

Kantxan eta frontoi-gunean kirol jokoetan aritu ahal izateko nahiko argi izango da. Horretarako altueran 6 metro dituzten 4 zutabe tronkotoniko jarriko dira, kantxako lau ertzetan.

Luminariak 60Wko Led-ak izango dira; potentzia agente linearen bitartez eta goiburuko erregulatuzaile bitartez erregulatuko zaie, egungo luminarien linearako fluxu erregulatuzailea dagoelako.

#### 5.- Metalgintza

Altzairu herdoilgaitzezko eskudelak jarriko dira kantxa eta frontoi gunera sartzeko arrapalaren bi alboetan, arrapala berriaren ondoan geratzen den eskaileran eta goiko aldeko eskailera berrian; 5 cm.ko diametroko esku-banda bikoitza edukiko dute, eta goiko aldekoa lurretik 100 metrora eta beheko aldekoa 70 metrora jarriko dira.

Era berean altzairu herdoilgaitzezko eskudela jarriko da goiko aldean, 80 cm.ko desnibela izango du eta 100 cm.ko altuera luzera guztian.

Frontoiaren goiko aldean altzairu galbanizatu eta triangelu erako lokailu -egitura duen tramex berri bat jarriko da, gaur egun dagoenaren orde, eraikinaren fatxadan pilotakadak ekiditeko eta bide batez baloi eta pilotak harrapatzeko eta era horretan haiek hartzera joan daitezkeen pertsonen erorketa arriskua saihesteko.

Tarteetako itxituretan, sekzio karratuko leiho-isurki metalikoa jarriko da, goiko aldean, paramentu bertikalean ainguratuta eta kantxa eta frontoitik ibaiko pasealekurako pasabidean egindako itxituren zoru horizontalean zigilatuta egongo den tantakina izango du, paramentu bertikalak etorkizun batean zikindu ez daitezzen.

#### 6.- Pintura

Frontoiko paramentu bertikal guztiak, pintura bereziarekin margotuko dira eta paretetako kirol markak , trafikoko seinaleztapenerako eta kirol pistak markatzeko erabiltzen den pinturarekin. Frontoiko paretak berde ilunez margotuko dira eta markaketa zuriz eta beltzez.

Kantxa eta frontoi-gunearen zoladura horizontala (kirol pistakoa) ere zuriz eta beltzez (edota Lanen Zuzendaritzak aukeratutako koloretan) margotuko da trafikoko seinaleztapenerako eta kirol pistak markatzeko erabiltzen den pinturarekin.

Egungo farolen zutabeak margotu egingo dira.

Kantxaren eta frontoi-gunearen kota berera dagoen pasagunean, trenkadekin egin eta zarpeatutako itxiturak ere margotu egingo dira.

Kantxa eta frontoi-gunea eta ibaiaren pasealekua bereziten dituen lorategian dauden, koadro elektrikoak, etab. berdez margotuko dira.

#### 7.- Lorezaintza

Kantxa eta frontoi-gunea eta ibaiaren pasealekua bereziten dituen lorategian gaur egun dauden bezalako hesiak landatuko dira, lorategiaren bi aldeetan planoetan ageri den bezala.

Kantxa eta frontoi-gunera daraman arrapalak eragiten duen gunean betelana egingo da, landare lurra erabiliz, ibaiaren pasealekuan dauden txorko guztietan eta goiko aldeko txorko berrietan, goiko aldean bi akazia landatuz eta atsedenerako gerizpea egongo den eta aulki batzuk jarri ahal izango diren leku bat sortuz. Landare lurrez betetako lekuetan belar-hazia botako da.

Azkenik, berriro urbanizatuko den zonan dauden zuhaitz eta zuhaixka guztiak inausi eta konponduko dira.

#### 8.- Hiriko altzariak

Ibaiaren pasealekuan dauden hiru aulki metalikoak kendu egingo dira, beste leku batean jarri eta berrerabili ahal izateko eta hain ordez egur teknikoko bost aulki jarriko dira.

Kantxa eta frontoi-gunean bi aulki luze jarriko dira, oinean itxura kurboa izango dutenak, haietatik bai kantxa-gunea bai frontoi-gunea ikusi ahal izateko. Aulki horiek birziklatutako plastikoz (%100 HDPE) egindako 40 mm.ko lodierako listoiez osatuta egongo dira. Goiko aldean ere horrelako aulkiak jarriko dira.

Kantxa eta frontoi-gunean dagoen paperontzia planoen arabera jarriko da eta goiko aldean, oinezkoen gunea eta egoteko gunea sortzen den hartan, lau moduluko multzoa jarriko da birziklatzeko, gaur egun udalerrian daudenen antzekoa.

#### 9.- Ekipamendua

Kantxaren erdia hartuz, kirol anitzeko pista jarriko da, futboleko, saskibaloiko, hockey-an, voleibol-ean eta bádminton-ean jolasteko. Injektatutako aluminiozko euste-piezen eta hotsa xurgatzeko loturekin lakatutako habe metalikoen bitartez osatutako itxitura bat egingo da horretarako. Ateen atzeko aldean, bi hesi gainjarriz osatuta egongo da, baloia zelaitik ateratzea ekiditeko eta saskibaloiko saskiekin, habeekin eta sarearekin.